

¡BILINCH DOAKABEARI!

POESÍA PREMIADA EN LOS JUEGOS FLORALES DE ESTA CIUDAD CON
UNA ESCRIBANÍA DE NIKEL.

Umerik izan bada munduan
 Zoriontasun gaberik,
 Donostiako Bilinch izandu
 Zala, ez dago dudarik:
 Patu-gaiztoak jarraitu zion
 Utzi gabe egun bat onik,
 Eraman arte mundu igeskor
 Eta naasi onetatik.

Jaiotzetikan ill arteraño
 Erio biotz gogorrek,
 Bere gañean zeukazkiela,
 Zirurien, atzaparrak:
 Itsuskitua, ustekabetan,
 Denak ez oso ezurrak,
 Aññ eriotza izugarria
 Izan oi dute bakarrak.

Baña, Apolok, ikusirikan
 Zuela barren garbia;
 Biotz beerá ta chit maitatsua,
 Aur baten inozentzia;¹
 Birali zion pena eta miñ
 Guzien gozagarria;
 Tortola baten egalazpian
 Erato-ren etorkia.

Senar maitea; gurasorikan
 Izan liteken onena;
 Mundu ontako neke ta lanak
 Ondo zeramazkiena;
 Iñori gaitzik opatu gabe
 Denak maite zituena;
 Zan egiazko adiskide bat
 Etsairikan etzuena.

Koplari samur gizagaiñoa
 Jaio zan, maitatutzeko,
 Ta amorioa kantatzen zuen
 Berekin sortu zalako:
 ¿Nola etzuen, bada, gau ta egun
 Ezpañean idukiko,
 Baldin onela naigabe denak
 Bazitzazkion aztuko?

Beartsu beti bizitu arren
 Etziraden penazkoak
 Aren lantuak eta negarrak,
 Baizik amoriozkoak:
 ¡A! zirurien atsegintasun
 Eta doai zerukoak
 Poztu zezaten, zizkiotela,
 Biraltzen aingeruchoak!

Ala da ezik ¿nork ark bezela
 Iñuri zispiro, lore,
 Gaitzik ez duten itz eder eta
 Beste zenbat jolasbide,
 Neskach garbiren matrall oriak
 Gorritu erazi gabe?
 Ark bezelako itz eztiitsuak
 Esateko ¿nor da trebe?

Aren itzerak iruditutzen
 Zazkit usoren urrungak;
 Mugidagabe dagoeneko
 Itsasoaren бага otsak;
 Gau osgarbian aize goñoren
 Suñu muñucho biguñak
 Gora alchatuak, choriandraren
 Egunsentiko diosalak.

(1) Gaitzik gabea.

Deritzazkit ¡ai! Euskal erriko
Aritz guzien pirpirrak:
Lore tartean gordea doan
Iturrichoren murmurak:
Kabi ondoan tellatupeko
Enarachoren chor chorrak;
Amorez illa dagoeneko
Errechinolen gorgorak.

Ark senti zuen amorioa
Da kerubiñen asnasa,
Jargoi oñean Jaungoikoari
Zuzendutzean otoitza:
Egusentian lore gañetan
Egaan dabillen artaiza;
Azuzenaren orri tartean
Pozez gordetzen dan intza.

¿Nor da ordea, nor, gairik aski
Pintatzeko¹ nolakoa
Izandu zuen anima biguñ
Garbiak amorioa?
Añ amorio gaitzik gabea,
Loratsu eta gasoa,
Tolezkabezko ezpañaz iñor
Lotserazi gabekoa?

Iñorez noski, ni ez naiz beintzat
Eta noa isiltzera.....
Baña ez, ez naiz isilduko, ez,
Bear det segi aurrera.
Pensa gaberik, berez etortzen
Zitzazkion min gañera
Itz egokiak, biursaririk
Bikañenaren gisara.

Ao betean ezpañetatik
Zitzaiozkan isuritzen,
Izjostalluak eta gozitzak
Zituztenak par erazten.

¿Nor egon muker Joše Mariren
Zaldiren koplak aditzen?
Neronek dituk zenbat ingeles
Ikusi parrez itotzen.

Baña, neretzat, ark utzi zigun
Moldaerarik onena,
Dudagabe da, *Juana Bišenta*
Olabeko neskarena;
Dezaiokegu eman, aldean,
Poema (2) baten izena;
Zeren aleak dute izen au
Ez izan arren au diña.

¡A! zer lastima etzala izan
Nabarmena asko bezela!
Paregabeko edertasunez
Apaindua zegoela!
Bada utziko zizkigun noski
Joia ederrik bestela,
Autsi gaberik esanaz;—ezer
Baliorik etzutela.—

Geiegikoa zan arek zuen
Modesti neurrigabea:
Etzuen nai zer izkribatuzen
Zuen iñork jakitea;
Ez eta ere moldaerarik
Bikañetaz galdetzea;
Añ guchi bere mirarizleak
Argitara ematea.

Genezakegu esan, lorerik
Politena izan arren,
Sasi tartean bere burua
Maiz oi zuela gordetzen;
Etzituela jazkai ederrak
Iñoiz jantzi nai izaten,
Baizik bakarrik, noiz edo berriz,
Norbaiti erakutsitzen.

Baña, eskerrak euskarazale
Bati ziradela bildu,
Eta liburu polit batean
Batzuek argitaratu:
Onela ditu bi lan on egin:
Bata, es dedilla galdu
Aren oroitza: eta bestea
Euskal-izkirak apaindu.

(1) Antzeztutzeko.= (2) Biursatea.

Bizitu bedi Euskal-errian
 ¡Oh Bilinch! zure arraza,
 Izan dezagun atzekabezko
 Egunetan zure antza:
 Patu gaiztoak gu ere gauzka
 Mendean ¡ai! zure gisa,
 Eta nondikan libre izango
 Geran da gure ametsa.

Kanta dezagun, kantatu gure
 Penen konsuelorako;
 Zeren arkaitzak eta mendiak
 Dituzte zeruratuko:
 Eta, Aitor ta bere lagunak
 Jainkoari eskatuko
 Izan dezala kupida guri
 Lege zarrak itzultzeko.

CLAUDIO OTAEGI-KOAK.



PREMIADA CON EL **RAMO DE LAUREL DE PLATA** EN LOS
 JUEGOS FLORALES DE ESTA CIUDAD.

— 25 —

Aspaldi ayetako gure asabak
 euskaldunak ziran; gu ere bai
 omen: ala uste.

¿Zertan dago Lekobide ur-saltoaren ondoan, arkaitzak beera saltoka datozen úrai begira? Bere begiratua illuna da, Maurioko putzuan itzalzera dijoan illargiaren azkeneko argiantza bezela, eta bere buru arikatua bularraren gañera erorten da, ekaitzak makurtzen duen zume-adarra lurrera bezela. Bere begiak len gerrariari ausartzi portitza ematen zieten, eta gerrako bere irrintziak etsayari zukaratz gogorra sartzen zion agintari ezikaitz izugarriak, orañ arkaitz batean eserita, bere oñetan dijoazkion urakin bere negárrak nasten ditu.

Bere amaren bularra utzi zuenez geroz guchienez eun bider mendiak elurrez estali dira; eta denbora guzi orretan bere biotzeko joya maiteenak, gatzain-zarraren ostoak neguantzean bezela, bere inguruan erorten ikusi ditu. Eta guziaz ere bere biotz burnizkoa austera naigabe miña sekulan irichi ezta; eta orañ... ¡ay orañ! erriaren zorrigaitz eta galdubearrak bere biotza naigabez josi, eta bere bularra lertzen dio, eta Iturriotz-ko basoetan bereetatik urruti negarrez urtzera etorri da, eta onela dagoela, orra non Otzoal zarra sasi-sastrakak urratuaz estu eta larri, Kantabriaren etsaik bere biotz burnizkoan urrikaltasunik sekulan arkitu etzuen Lekobide-ri aurrean jartzen zayon.

Lekobideren begitarte iñuria eta betazal bustiak ikusi zituenean, bere bekoskoa neguko odei bat bezela illundu, eta chit latz eta garratz esan zion: